

I

ONGILEA

Zaila da Kanalako nesken eskolaren historia kontatzea posible egin zuen pertsonari buruz hitz egin gabe. Busturian bizi zen Nicolas Domingo Arroategi Amunategi kanalatarra izan zen bere testamentuan klausula hau idatzi zuena:

Nire heriotzaren aurretik ez bada ikastetxerik eraikitzen Kanalan, nire borondatea da nire testamentuaren betearazleek sortzea eskola nire ondasun edo gastuekin, ahal baldin bada Torrearen landan edo herrigunean, eta Sukarrietako lurretan. Maisu edo maistraren soldata, eskola sexu bientzat izango baita, zazpiehun eta berrogeita hamar pezetakoa izango da, eta 100 pezeta materialarentzat eta eraikina mantentzeko.

Kanalatar gehienek ezer gutxi gogoratzen dute ongile horri buruz. Askok bere aitarekin nahasten dute, Batistenekoko kortsario laudatuarekin, Irigoienek haren ibilerak kontatu baitzizkigun *Los tremendos de Canala* izeneko nobela ospetsuan.

Nicolas Arroategi Gaztañaga txikia itsasgizona izan zen, aita, osabak eta aitona bezalaxe. Itsasontzietako kapitaina izan zen (1849 eta 1852 bitartean *Asuncion* goleta-bergantina gobernatu zuen eta,

besteak beste, eguneko bideak egiten zituen Trondheim, Aalesund eta Kristiansund-etik Bilboko portura, bakailao kargamentuekin), eta ondasun handiak bildu zituen. Gabriela emaztearen bat-bateko heriotzaren ostean, nabarmen handitu zuen kapitala, hainbat ondasun eskuratu baitzituen: Busturiko Uriguen Goienengoa, Ajangizko udalbatzako Errotaburu, Sondikako Ormaetxe eta Begoñako Agirleta (Egirleta) etxeak, baita bi bergantin ere: *Tomas Joaquín* izenekoa, Filipinetako ibilbidean ohikoa zen itsasontzia, eta *Don Juan*, Nicolasek anaia Manuel Mariaren agindupean utzi zuena.

Kanalan jaio zen 1827ko irailean, San Martingo ermitaren inguruan zegoen familiaren baserrian. Dena dela, kasualitate hutsa izan zela esan daiteke, izan ere, bere aita Nicolas María Gorgonio Arroategi Lartitegi eta ama Maria Braulia Amunategi Bulukua, Sukarrietako San Andresen jaiotako busturiarra, haien etxebizitza berriko lanak bukatzeko zain zeuden jaio zenean. Villa Brauliena izango zen Busturiko etxe horren izena, eta bertan pasatu zuen gure Nicolasek haurtzaroaren eta gaztaroaren zati handi bat, urruneko uretan ibiltzeko aukera emango zioten itsas ikasketak egin baino lehen.

Nicolas Arroategi Amunategi Busturiko Axpe-San Bartolomen ezkondu zen lehen aldiz 1852ko otsailaren 4an, Gabriela Maruri Ibañez de Aldekoa gernikarrarekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten: Felipe, Ascension eta Nicolas (azken hori ama baino hamabi egun ge-roago hil zen 1861ean, dirudienez, erditzean sortutako arazoengatik). Beraz, 33 urterekin alargundu zen. Ziurrenik, orduantxe pasatuko zitzaion burutik lurrean behin betiko geratzea, baina nabigatzen jarraitu zuen epe batez, guk dakigula 1868. urte bukaera arte gutxienez, *Sofía* baporearen kapitain.

56 urterekin alargun eta seme-alabarik gabe zegoen, tuberkulosiak jota hil baitzitzaizkion Felipe semea 27 urterekin eta Ascension alaba 25ekin, baita Ascension iloba bakarra ere, 16 hilabeterekin. 1884ko martxoaren

3an berriz ezkondu zen, oraingo honetan kanalatar batekin, Petra Pascuala Perez de Miguel Etxebarria andrearekin, hain zuzen. 28 urte zituen eta urruneko lehengusina zen, bere ama Valentina Etxebarria Arroategi baitzen. Halaxe geratu zen jasota ezkontza-agirian:

Busturiko elizatean, nik, Angel Amunategik, Gasteizko apezpikutzako Santa Maria parrokia-elizako koadjutoreak, bertako abade ekonomo Juan de Dios Ugarteren berariazko lizentziarekin, hitz honen bidez ezkontzen ditut, batetik, Nicolas Domingo Arroategi, Kanalako Legendikakoa, alarguna, 56 urtekoa, pilotua, Kanalako Legendikako marinel Nicolas Arroategi jaunaren eta bertako Braulia Amunategi andrearen seme legitimoa eta, bestetik, Petra Pascuala Perez de Miguel andrea, ezkongabea, 28 urtekoa, Esteban Perez de Miguel marinel jaunaren eta Valentina Etxebarria andrearen alaba legitimoa, hirurak Kanalako Legendikakoak. Monizioak emanda eliz tribunalaren jakinarazpenaren ostean, eta hirugarren-laugarren mailako odolkidetasunarekin, eta sakramentu hau baliagarri eta legitimo izateko beharrezko baldintza guztiak betez, Kanalako Legendikako Anastasio Pedro Etxebarria pilotua eta Arrietako Tomas Uriarte baserritarra testigu izanda, eta egia denez, gaur ospatzen den egunean sinatzen dut Busturian, 1884ko martxoaren 3an.

(Sinatzaileak: Angel Amunategi eta Juan de Dios Ugarte).

Lurrera itzuli ostean, Busturia eta Liverpool artean bizi izan zen eta, itsasontziekin lotutako merkataritza negozioez gain, politika kontuetan ere ibili zen. Ideia liberal foruzaleetatik hurbil egon zen eta Busturiko alkate izan zen 1885, 1895 eta 1902an, eta senatarirako aurkeztu zen 1889, 1898 eta 1903an.

Laurogeitaka urterekin hil zen, 1910eko apirilaren hasieran, eta bere borondateak 1914an burutu ziren, gutxienez Kanalari buruzkoak. Petra alarguna 1915ean hil zen.

Kanalako eskolaren sortzailea gizon konprometitua zela esan dezakegu eta, nolabait, bere sasoiari aurreratua. Lan arloan, kapitain gisa, indartsu ospea izan zuen, eta erabakietan gogorra izatearena ere.

Pertsona ikasia zen, esan dugun bezala, bidaiatua, mundua nahiko asaldatua zebilen sasoi batean eta emakumeek jasotzen zuten tratua gaur egungoa baino askoz diskriminatzaileagoa zenean.

Gizonek baztertutako lan batzuk emakumeek egiten zituzten orduan, soldata kaskarrak kobratuz. Ez zen urrunera joan behar horrelako errealitateak ikusteko. Nerbioi ibaian, zirgarien lan nekagarria emakumeek egiten zuten: arrastaka eramaten zituzten itsasontziak itsasadarrean gora eta behera zamabereak balira bezala. Bilboko kaletako emakumezko zamaketari aktiboek destainaz begiratzen zituzten emakume haiek, Bilbokoe ere buruetan otzara itzelak zituztela itsasontzietako sotoetara igo eta jaitsi behar izaten ziren arren.

Emakume haietako askoren seme-alabak eta senarrak hilda edo larri gaixoturik zeuden edo aspaldian alde egin zuten. Heziketa gutxi edo batere gabeko emakumeak ziren, animalien edo makinaren lana egiten zutenak, bizirauteko beste modurik ez zutelako aurkitzen.

Baina ez zen Bilbon edo ahoskatzeko zailak diren toki urrunetan bakarrik gertatzen zen zerbait, gure itsasadarrean ere gertatzen zen. Kanala, Axpe-San Bartolome eta Sukarrietako San Andreseko auzoetako emakumeek egin ohi zituzten Gernikaraino igotzeko gai ez ziren ontzien karga eta deskarga lanak. Bereziki orduko sasoi hartan, Okako bokaleko gizon gehienak marinela zirenean.

Nicolas Arroategi Amunategik bazekien hezkuntzak, bereziki emakumeenak, bizitza asko hobetu zezakeela, eta haien familien bizitza ere. Emakumeekin enpatizatu zuen eta ez zuen hil arte itxaron arazoa arintzen saiatzeko.

Agian askok ez dakite Kanalako eskolaren eraikuntza gastuak ordaindu baino hogeit bat urte lehenago Arroategik Busturian beste bat

eraikitzeke agindu zuela (1892). Axpe-San Bartolomeko lau eta hamalau urte bitarteko neskentzako doako eskola bat zen, eta bere maizterren alabak ere joan zitezkeen, Sukarrietako Urkibarri baserrikoak. Gainera, maisu edo maistrak igandero zuen eskolak emateko bete-beharra, ordu bietatik lauetera, hala nahi zuten pertsona helduak batzen baziren, adin mugarik gabe, edo lanegunetan eskolara joan ezin zitezkeen ikasleak.

Paradoxikoa da Kanalak 1914tik nesken eskola bat izan bazuen ere, berrogeita hamarreko hamarkada erdialdean (1948-1951) Espainiako estatuan analfabetismoari buruz egindako erroldak Sukarrietako lau kanalatar aipatzea eta, bitxia bada ere, denak emakumeak izatea. Eskolaren alde esan behar da gehienak ez zirela Kanalan jaio eta bertan jaiotako bakarra Arroategi eskola sortu baino berrogeita lau urte lehenago jaio zela.